

Garezurreko Osteopati Akademiak, Osteopatiaren azterketa eta ikerkuntza zein A.T Still-ek (1828/1917)definitu zuen bezala osteopatiaren jatorriari leial mantenduz bere osotasuna babestea du helburu nagusi.

Beraz:

- 1.Hainbat “espezialitate mediku” eta erakunde zientifikoren arteko lankidetzak bultzatuko du, horrela jakintzak trukatzuz.
- 2.Osasanaren onurarako, disziplina honen interesa eta ezaguera hobetzeko mota ezberdinetako jarduerak sustatuko ditu.
- 3.Osteopatian formakuntza eta ikerkuntza bultzatuko ditu, bere printzipioei fidel mantenduz.
- 4.Osteopatiaren praktika defendatu eta erraztuko du akademikoen artean, medikuntzan tituluduenak bakarrik ez dela kontuan hartuz.

Bere helburuak lortzeko akademiak:

- 1.Kide guztiekin bilerak egingo ditu.
- 2.Bere kideekin eta beste espezialitate-etako langileen edota beste osteopaten partaidetzarekin, gai jakin batzuei buruzko lan taldeak antolatuko ditu.
- 3.Bere kideek parte hartzen duten bilera, mintegi eta antzeko beste ekitaldien antolakuntzan, parte hartu eta sustatu egingo ditu.

ZER DA OSTEOPATIA

Diagnostikoarentzat zein tratamenduarentzat, Osteopata MRP- az (Movimiento Respiratorio Primario) baliatzen da. MRP- a, gorputzak eta berau osatzen duten estruktura bakoitzak (hezur, organo, glandula, nerbio, giarre, zaina...) esperimentatzen duen zabaltze eta konprimitze mikro-mugimendu zikliko bat da.

Osteopatak eskuekin mugimendu hau nabaritzen du eta egitura (estruktura)/funtzio erlazioa gorputzeko zein lekutan aldatzen den detektatzen du, gero anatomofisiologian oinarrituz, oreka berriz ezartzen saiatzen da.

Osteopatak, gorputzeko ehunak ohizko egoerara itzultzeko saiakeran, sentitzen eta “aditzen” ditu. MRP- ak nola lagun dezakegun adierazten digu; eta lehen arazoa ezin konponduz zebilen autoerregulazio sistema , ondorengoaz arduratzen da.



Garezurreko Osteopatia Akademia

www.aocraneal.com
academia@aocraneal.com



Garezurreko
Osteopatia Akademia

AOC-a (Antigua Asociación Vasco-Navarra de Osteopatía) Jean Claude Pouey-ek formatutako osteopatek sortua izan zen. Jean Claude Pouey, Registro de Osteopatas Frances ROF-eko kide ohoreduna da, Bernard Barillon-en ikasle zuzena (biak AOC-ko kide ziren).

Bernard Barillon, Harol Magoun- en diszipulu eta Amerikako Cranial Academy-ko kide izan zen.

Harold Magoun, W.G. Surtherland-en ikaslea izana eta hau berriz A.T. Still-ena, Osteopatiaren hasierako oinarriaren lotura zuzena izan zen Frantziarekiko.



ZER

Eskuzko medikuntza da, ez sintomatikoa, gaixoaren osotasun fisikoa eta psikikoa errespetatzen duena. Gorputzaren egitura ezberdinen mugimendu galera, pertsonaren historia, bere ingurugiroa, familia, lana, gatazkak... kontuan hartzen dituena.

Anatomia eta fisiologian oinarritzen da.

ABANTAILAK

1. Ez du minik ematen.
2. Orekatzailea da.
3. Lasaigarria.
4. Saio gutxi eta tartekatuak.
5. Globala da.
6. Sendagarri eta prebentiboa. (Sorburura doa).
7. Lesiorik eragiteko arriskurik gabe.

Muskulu- eskeleto sistemaz gain, gune sakonagoak lan ditzakegu: Errai, nerbio eta buru- hezur eremua, eta haien arteko erlazioa aurkitu.

DA OSTEOPATIA

HIRU PRINTZPIO DITUEN DOKTRINA BATEAN OINARRITZEN DA

1-GLOBALTASUNA: Giza gorputza osotasun bat da. Edozein arazok, edozein mailatan, gorputz osoarengan eragingo du. Hau funtsezkoa da diagnostikorako, tratamendu etiologikoa eta ez sintomatikoa egin nahi baita.

2-AUTO-SENDAKETA Gorputzak (hitz erlatiboetan ulertuta) sendatzeko ahalmen erantsia dauka, hau da, giza gorputzak funtzionamendu onaren oroimena mantentzen du. Osteopatiaren helburua auto-erregulazioaren mekanismoei jokatzea eragozten dieten oztopoak ezabatzea da.

3-EGITURA ETA FUNTZIOAREN ARTEKO ERLA

Printzipio honek Osteopatiari diagnostikoa eta tratamendua egiteko balio dio. Hau da, egitura batek bere mugikortasuna galtzen duenean, ezin ditu bere funtzioak bete. Orduan, Osteopatikoki ulertuta, LESIOAN dagoela esaten dugu, eta lesioa diagnostikatzean Osteopataren lana egiturari (hezurra, erraia, faszia...) mugikortasuna itzultzea izango da.

ERABILPENAK

Osteopatia lesio osteopatikoa edo funtzionaletara zuzentzen da batez ere, hau da, ohizko diagnostikoen baliabideekin erraz detektatzen ez diren min edo gorputzeko disfunzioetara, arazoa estrukturaren mugikortasunaren galera edo alterazioarekin erlazionatuta baitago.

Lesio hauen sortzaileak izan daitezke:

1. Istripuak (kolpeak, eroritakoak, esginzeak...).
2. Traumak (fisikoak eta psikikoak).
3. Erditzea (ama zein haurraren).
4. Erraietako arazoak.
5. Ebakiondoak.
6. Infekzioak, etab.

Beraz, gomendatzen da:

1. Lesio traumatologiko-etan.
2. Lesio neurologiko-etan.
3. Haurdunaldi prestakuntza eta jaioberrien arazoak.
4. Esfera ginekologiko-ko arazoak (eta urologikoak)
5. Arnas, digestio eta zirkulazio - sistemaren arazoak.



PARTAIDEAK:
www.aocraneal.com/miembros.html

OSTEOPATIAN PRESTAKUNTZEKO:
Bergarako UNED-en akademia hontako kideek osteopatia prestakuntza ematen dute.

Informazio gehiago:
www.uned.es/ca-bergara